



89. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2015eko urtarrilaren 29an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

Bertaratutako zinegotziak: Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Peru Fernandez-Arroyabe Txapartegi jn.
Eneko Agirre Maiora jn
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Isidro Fernandez Echave jn.
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.
Aitor Leiza Alberdi jn

Ez bertaratuak Xabier Gallastegi Idigoras, jn.

Halabeharrezko Idazkaria: Amaia Gonzalez Iribar



EGUNeko AZTERGAIAK

OGASUNA.-

1.1.- SAN JUAN EGOITZAREN 2014KO 1. KREDITU ALDAKETAREN BERRIEMATEA

Iñaki Agirrezabalaga alkateak, hitza eman dio Arritxu Gonzalezi eta honek San Juan Egoitzaren 2014ko 1. Kreditu aldaketaren berri eman dio osoko bilkurari.

San Juan egoitzaren 1.kreditu aldaketa: inbertsioetarako kreditua behar dute, labadora, labea eta videoproyectorea erosi ditu					
2014-KALD-000001					
2014ko abenduaren 31, 782/2014 alkate dekretua.					
			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 0000.212.000.00.01 2014	13	CONSER.Y MANT. DE MAQUI,INST.Y UTILIAJE.	19.845,00	8.899,31	10.945,69
1 0000.219.000.00.01 2014	153	CONSERVAC.Y REPARA.OTRO INMOVILIZADO	5.000,00	609,97	4.390,03
Guztira				9.509,28	
			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0000.625.000.00.99 2014	66	MOBILIARIO Y ENSERES. OTROS ENSERES	0,00	9.509,28	9.509,28

Inork ez duenez ezer esateko hurrengo puntura pasa dira.

1.2.- 2014KO AURREKONTUAN INDARREAN EZ DAUDEN UDAL KONTRATUAK DIRELA ETA JASOTZEN DIREN FAKTURENGATIK BIGARREN ERREPARO ORRIAREN ETA ALKATEAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.

“AURREKARIAK:

**Kontu.hartzaleak, Zumaiako kontratuen egoeratz interesaturik, Udaleko kontratuen informazioa
eskatu zuen azaroan eta honako hauetako epez kango aurkitu zituen:**



Enpresa	Kontratutako zerbitzu	Data Kontratu	Iraupena	Zenbatekoa	Zenbatekoa curr. 2014	data amaitu
				kontratuaren (BEZA barne)		
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	01/02/2009	1 + 1		329,25 €/mes;Ap. C 414,59 €/mes;Ap. D 601,79 €/mes;SAD 20,98	01/02/2011
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	19/10/2009	1 año		5.154,96 €	19/11/2010
UNI 2	Limpieza edificios municipales	01/07/2009	1+1		399.294,00 €	01/07/2011
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	01/03/2005	1+1		36.104,44 €	01/03/2007
CESPA, S.A.	Zabor bilketa(RSU)	01/11/2007	mensual		22.930,40 €	01/12/2007
CESPA, S.A.)	Kale garbiketa	01/11/2007	mensual		13.221,33 €	01/12/2007
CESPA, S.A.)	Bi bat gehitzea lanaldi osoan		mensual		1.700,73 €	27/12/2007
Irati S.L.	Desratizazioa	01/06/2008	1		8.056,53 €	01/06/2009
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1		Visitas g.	05/11/2012
Edukontzi higienikoak	EURO-SERVHI	15/08/2010	1		1.166 €	15/08/2011
Alhondiga atea manten	DORMA	15/05/2011	1		814 €	15/05/2012
HITZEKO E.M.U.	Komunikazio plana	01/12/2008	1	48.720,00 €		01/12/2009
Miren Usua Urbieta	Aita Mari Zinea	1 (luzapena)				04/04/2011

Gaurko egunean oraindik kontratu hauek irregularitasun egoeran daude. Egoera hau jakinarazi zen aurreko erreparo orrian.

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

"23. artikulua. Kontratuaren iraupen-epena."

1. Sektore publikoko kontratuaren **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian,** kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzukontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:



k) *Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.*

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebehar ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen araberakoa izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebehar ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazko.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikulan aurrekitako fondoaren erabilpenerako amankomunatuei erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzalea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidezta etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedienteean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaidea, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoia izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikulan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldaututa martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-egasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaleek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzaitza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»



"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostenak helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako eba zpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzi ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketen aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzalea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere eba zpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako eba zpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FACTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
31/10/2014	Z1400246	HARRESPIL	ZUMAIKO HILERRIKO KUDEAKETA	3.498,38
14/04/2014	10842	EUROSERVHI	AMPLIACIÓN DEL SERVICIO DE CAMBIO E HIGIENIZACIÓN DE CONTENEDORES	15,84
01/08/2014	20524	EUROSERVHI	CAMBIO E HIGIENIZACIÓN DE CONTENEDORES	1.520,64
2014/11/01	950/100322836	RENTOKIL	DESRATIZAZIOA ETA DESINSEKTAZIOA AZAROA	566,75
2014/11/15	14/214	EREGI	UDALEKO KOMUNIKAZIO PLANA DISEINATU ETA GAUZATZEA AZAROA	4.332,56
2014/11/03	145/14	KASTORE GEST S.L.BEGI BISTAN	ZUMAIKA ZU ALDIZKARIAREN BANAKETA	923,82
	133/14	KASTORE GEST S.L.BEGI BISTAN	IRAILYKO ZAINTZAK	530,51
2014/07/31	99/14	KASTORE GEST S.L.BEGI BISTAN	ZAINTZAK ETA BESTE LANAK UZTAILA	1.046,36
2014/12/08	149/14	KASTORE GEST S.L.BEGI BISTAN	ZAINTZAK ETA BESTE LANAK AZAROAK	1.709,93
30/11/2014	14CND00049	CESPA -FERROVIAL	IRAILYKO PEOI GIDARI BATEN AMPLIAZIOA	1.933,43
30/11/2014	14CND00050	CESPA -FERROVIAL	HIRI GARBIKETA	41.504,14
30/11/2014	3008964	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	SERVICIOS USUARIOS NO DEPENDIENTES NOVIEMBRE	6.069,00
30/11/2014	3008965	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	SERVICIOS USUARIOS DEPENDIENTES NOVIEMBRE	11.702,61
30/11/2014	1408318	UNI2	LIMPIEZA BRANKA NOVIEMBRE	1.073,09
30/11/2014	1408319	UNI2	LIMPIEZA AYUNTAMIENTO NOVIEMBRE	2.790,02
30/11/2014	1408320	UNI2	LIMPIEZA POLICIA MUNICIPAL NOVIEMBRE	643,85



Zumaiako Udala

2015IAKU0001-009-001

30/11/2014	1408321	UNI2	LIMPIEZA LUDOTECA NOVIEMBRE	804,82
30/11/2014	1408322	UNI2	LIMPIEZA TURISMO NOVIEMBRE	643,85
30/11/2014	1408323	UNI2	LIMPIEZA ALGORRI NOVIEMBRE	740,92
30/11/2014	1408324	UNI2	LIMPIEZA GAZTETXOLA NOVIEMBRE	214,62
30/11/2014	1408325	UNI2	LIMPIEZA WC PUBLICOS NOVIEMBRE	2.924,15
30/11/2014	1408326	UNI2	LIMPIEZA ALONDEGIA NOVIEMBRE	3.111,94
30/11/2014	1408327	UNI2	LIMPIEZA AITA MARI IKASTETXEA NOVIEMBRE	5.901,96
30/11/2014	1408328	UNI2	LIMPIEZA SAGARBIDE IKASTETXEA NOVIEMBRE	9.550,45
30/11/2014	1408329	UNI2	LIMPIEZA ARRANGOLETA NOVIEMBRE	1.985,21
30/11/2014	1408330	UNI2	LIMPIEZA HOGAR DEL JUBILADO NOVIEMBRE	1.609,63
30/11/2014	1408331	UNI2	LIMPIEZA BAKE EPAITEGIA NOVIEMBRE	214,62
30/11/2014	1408332	UNI2	LIMPIEZA MARKESINA NOVIEMBRE	80,48
30/11/2014	1408333	UNI2	LIMPIEZA AITA MARI HAURTZAINDEGIA NOVIEMBRE	1.985,20
30/11/2014	1408334	UNI2	LIMPIEZA OIKIAKO ESKOLA NOVIEMBRE	1.609,63
30/11/2014	1408335	UNI2	LIMPIEZA PABELLON BRIGADA NOVIEMBRE	107,30
30/11/2014	1408336	UNI2	LIMPIEZA EPA NOVIEMBRE	643,85
30/11/2014	1408337	UNI2	LIMPIEZA ASCENSORES JADARRE NOVIEMBRE	209,69
30/11/2014	1408338	UNI2	LIMPIEZA FORONDA NOVIEMBRE	160,97
30/11/2014	1408339	UNI2	LIMPIEZA ASCENSOR ARDANTZABIDE NOVIEMBRE	212,98
30/11/2014	1408340	UNI2	LIMPIEZA EDIFICIO TORREBERRI NOV	536,55

ONDORIOAK:

a) **Aurreko erreparo orrian (azarokoa) aipatu zen bezala** CESPAKO egoera oso larria da "hilabete baterako" atera zelako bai zabor bilketa zerbitzua eta bai kale garbiketa.

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenaren kontra doa. Honek esaten du:

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epena."

Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,** kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Beraz ez du zentzurik zerbitzua hilabete iraunaldia izatea eta kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzek; egunero zaborrak jaso eta kaleak garbitzen direlako urte askotan zehar, eta urteko zenbateko handia delako.

b) Zerrendatutako kontratu guztiak irregularitasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

c) Mementoz, zerrendatutako fakturen ordainketaren izapidetza etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzialeak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebaZen guztien inguruan eta **puntu independiente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**"

**AURREKARIAK**

2014ko abenduaren 19an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (3532 erregistro zenbakiarekin):

**Kontu-hartzaileak, Zumaiako kontratuen egoeraz interesaturik, Udaleko kontratuen informazioa
eskatu zuen azaroan, eta honako hauek epez kanpo aurkitu zituen:**

Enpresa	Kontrataturako zerbitzu	Data kontratu	Iraupena	Zenbatekoa kontratuaren (BEZA barne)	Zenbatekoa curr. 2014	data amaitu
						amaitu
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	01/02/2009	1 + 1		329,25 €/mes;Ap. C 414,59 €/mes;Ap. D 601,79 €/mes;SAD 20,98	01/02/2011
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	19/10/2009	1 año		5.154,96 €	19/11/2010
UNI 2	Limpieza edificios municipales	01/07/2009	1+1		399.294,00 €	01/07/2011
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	01/03/2005	1+1		36.104,44 €	01/03/2007
CESPA, S.A.	Zabor bilketa(RSU)	01/11/2007	mensual		22.930,40 €	01/12/2007
CESPA, S.A.)	Kale garbiketa	01/11/2007	mensual		13.221,33 €	01/12/2007
CESPA, S.A.)	Bi bat gehitzea lanaldi osoan		mensual		1.700,73 €	27/12/2007
Irati S.L.	Desratizazioa	01/06/2008	1		8.056,53 €	01/06/2009
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1		Visitas g.	05/11/2012
Edukontzi higienikoak	EURO-SERVHI	15/08/2010	1		1.166 €	15/08/2011
Alhondiga atea manten	DORMA	15/05/2011	1		814 €	15/05/2012
HITZEKO E.M.U.	Komunikazio plana	01/12/2008	1	48.720,00 €		01/12/2009
Miren Usua Urbieta	Aita Mari Zinea	1 (luzapena)				04/04/2011

Gaurko egunean oraindik kontratu hauek irregularitasun egoeran daude. Egoera hau jakinarazi zen aurreko erreparo orrian.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, hainbat kontratu epez kanpo daudela ohartarazten du. Horren aurrean, aplikagarriak zaizkion arauak aipatzeaz gain, indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi direla zehazten du.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidezta eten du:

FACTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
15/10/2014	14/188	Hitzeko S.L.U.	Udaleko komunikazio plana	4.332,56 €
31/10/2014	14CND00044	Cespa	Zabor bilketa eta garraioa eta hiri-hondar garraioa	41.504,14 €
31/10/2014	14CND00043	Cespa	Peoi gidari baten ampliazioa	1.933,46 €
31/10/2014	950/100318607	Urria: Rentokil Initial	Desratizazioa eta desinsektazioa	649,89 €
31/07/2014	950/100319443	Uztaila: Rentokil Initial	Desratizazioa eta desinsektazioa	649,89 €
31/08/2014	950/100319441	Abuztua:Rentokil	Desratizazioa eta desinsektazioa	649,89 €



Zumaiako Udala

2015IAKU0001-009-001

		Initia		
31/09/2014	950/100319442	Iraila:Rentokil Initia	Desratizazioa eta desinsektazioa	649,89 €
31/10/2014	1407446	UNI2	Limpieza branka	1.073,09 €
31/10/2014	1407447	UNI2	Limpieza Ayuntamiento	2.790,02 €
31/10/2014	1407448	UNI2	Limpieza edif policia municipal	643,85 €
31/10/2014	1407449	UNI2	Limpieza edif ludoteca	804,82 €
31/10/2014	1407450	UNI2	Limpieza edif oficina de turismo	643,85 €
31/10/2014	1407451	UNI2	Limpieza edif algorri	740,92 €
31/10/2014	1407452	UNI2	Limpieza edif gaztetzola	214,62 €
31/10/2014	1407453	UNI2	Limpieza wc	2.924,15 €
31/10/2014	1407454	UNI2	Limpieza alondegia	3.111,94 €
31/10/2014	1407455	UNI2	Limpieza en herri eskola	5.901,96 €
31/10/2014	1407456	UNI2	Limpieza en sagarbide ikastetxea	9.550,45 €
31/10/2014	1407457	UNI2	Limpieza en arrangoleta	1.985,21 €
31/10/2014	1407458	UNI2	Limpieza en hogar del jubilado	1.609,63 €
31/10/2014	1407459	UNI2	Limpieza en Bake epaitegia	214,62 €
31/10/2014	1407460	UNI2	Limpieza marquesina del autobús	80,48 €
31/10/2014	1407461	UNI2	Limpieza en haur eskola	1.985,20 €
31/10/2014	1407462	UNI2	Limpieza en Oikia eskola	1.609,63 €
31/10/2014	1407463	UNI2	Limpieza en local de brigada	107,30 €
31/10/2014	1407464	UNI2	Limpieza EPA	643,85 €
31/10/2014	1407465	UNI2	Limpieza ascensores jadarre	209,69 €
31/10/2014	1407466	UNI2	Limpieza Foronda	160,97 €
31/10/2014	1407467	UNI2	Limpieza ascensor ardantzabide	212,98 €
31/10/2014	1407468	UNI2	Limpieza Torreberri	536,55 €
31/10/2014	2978409	EULEN	Usuarios no dependientes octubre	6.217,66 €
31/10/2014	2978410	EULEN	Usuarios no dependientes octubre	15.143,73 €

ERABAKI DUT:

Horren aurrean, eta ahoz adierazi bezala, esleitzera atera behar diren kontratuuen prozedurak martxan jartzeko agindua ematen jarraitzen dut. 2014ko abenduaren 19an, Udalbatzak onartutako erabakiaren bidetik, zabor bilketa eta kale garbiketa kontratuak esleitzera ateratzeko prozedurei datak zahaztu zitzaizkien. Bitarte horretan zerbitzua ematen jarraitu behar denez, ordaindu daitezela emandako zerbitzu horiek."

Alkateak azaldu du lehen ere tratatu zela gai hau eta hor daudela, espeditentean, agiri ezberdinak (erreparo orria, alkate erabakia...)

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du dagoeneko bigarren erreparo orria dela, bigarren aldiz erantzun berdina ekartzen dela eta espero dutela hirugarrenik ez egotea.



1.3.- IRIZPENAK:

1.3.1.- 2015eko AURREKONTU OROKORRARI EZARRITAKO HELEGITEAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA ETA AURREKONTUAK BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

"EAJ-AK 2015eko AURREKONTU OROKORRARI EGINDAKO ERREKLAMAZIOAREN ERANTZUNA:

A) Aurrekariak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koan, Gipuzkoako lurralte historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa dio:

15. artikulua. Ondorengo tramiteak.

1.- Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsitzat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

17. artikulua. Interesatuak.

1.- 15. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, hauexek hartuko dira interesatutzat:

a) Erakundea dagoen lurraldeko biztanleak.

b) Erakundearen lurraldean bizi ez badira ere, zuzenean ukituta daudenak.

c) Elkargo ofizialak, ganbara ofizialak, sindikatuak, elkartea eta lanbide nahiz ekonomia eta auzo interesak jagoteko legez eratuta dauden gainerako erakundeak, beraiei dagozkienetan defentsan dihardutenean.

2.- Aurrekontuaren aurkako erreklamazioak arrazoi hauengatik soilik aurkeztu ahal izango dira:

a) Gertuketa eta onespena foru arau honetan ezarritako izapideei lotuz ez egitea.

b) Legezko manua edo legebidezko beste edozein titulu dela bide erakundeari eska dakizkiokeen betebeharra betetzeko behar den kreditua alde batera uztea.

c) Sarrerak ez izatea nahiko aurrekontuko gastuei aurre egiteko, edo gastuak ez izatea nahiko beharrizanetarako

b) Erantzuna

a)EAJ-ak aurkeztutako erreklamazioak 5 alegazio ditu.

b)Hauetatik 1, 2, eta 5. alegazioak ez dira onartzen 17.2 artikuluen barruko arrazoieta oinarritzen ez direlako.

c) 3. Alegazioari erantzuna:

Bostgarren kapituluan inbertsio errealen besterenganatzean, hemen industrialdeko lursaila berriz ere jarriko da subastan, enkantean, eta makroekonomi horretan indikadoreak dioten arabera egoera ekonomikoa hobetzearen aztarnak daude horregatik lurzoru industrial hau saltzeko aukera dagoela uste dugu aipatutako prezioan.Beraz finantzen oreka ez da hausten . Beraz 17.2 artikuluak dionaren arabera alegazio hau ezin da onartu.

c) 4 . Alegazioari erantzuna

Zaborraren kostuari dagokionez, oraindik ez dago argi handituko den edo gutxituko den. Beraz udalaren kudeaketaren aldaketa behin betikoz onartzen denean, orduan egingo dira egin behar badira,beharrezko doiketak. Gaur egun dagoen informazioarekin behin behineko kostuak ditugu, sistemaren ezaugarri denak onartutakoan behin betiko bihurtuko direnak. Beraz 17.2 artikuluak dionaren arabera alegazio hau ezin da onartu.

Bestetik, gogoratu behar da hondakinen kudeaketari dagokionez, 2014/12/19ko Plenoan onartu zena non ondorengoa dioen: " Udal Elkartea 2015eko martxoaren lehenengo astean estatutoen aldaketarako erabakirik ez badu hartzen, Zumaiako Udalak ondar zatiaren bilketarako kudeaketa zerbitzua esleitzeko kontratazio izapideak abiaraziko ditu. Eta, 2015eko uztailaren 31-n Udal Elkartearen aldetik zabor bilketa integrala kudeatzeko tramite guziak burututa ez baleude, Zumaiako Udalak kontratua esleituko du exekuzioarekin lehenbailehen hasteko"

"2015eko URTARRILAREN 26KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2015. URTERAKO AURREKONTU OROKORREI EZARRITAKO ERREKURTSOA DELA-ETA, M^a MONTSERRAT ARANA PÉREZ, M^a EDURNE EGAÑA MANTEROLA, JUAN CARLOS CENDOYA AIZPURUA, D.ISIDRO FERNÁNDEZ ETXABE ETA D.XABIER GALLASTEGI IDIGORASEK, GUZTIAK EAJ UDAL TALDEKO KIDE DIRELARIK.

AURREKARIAK

1.- 2014ko abenduaren 16ko Ogasun Batzordean, 2015. urterako aurrekontu proiektu proposamena aurkeztu zen, horrekin batera emendakinak ere bai. Jarraian, irizpena bozkatzen da 2015eko aurrekontu orokorraren behin betiko onarpenerako, bertan EAJ-ren Osoko Emendakina onartzen da, eta, horregatik, ez da onartzen 2015eko aurrekontu orokorraren proiektua. Beraz, aurrekontu orokorraren proiektua Osoko Bilkurara ez eramatea erabakitzentz da.

2.-2014ko abenduaren 19an ospatutako Osoko Bilkuran, alkateak aurrekontu proiektua proposamena bezala eraman zuen, bertan zinegotzien aldeko gehiengo botoekin; 7 Alde (6 BILDU, 1 ARALAR); Abstentzioak 0; Aurka 6 (1 PSE, 5 EAJ) 2015.urterako aurrekontu orokorra onartu zuten behin-behineko izaeraz.

3.-Aurrekontu orokorra 2014ko abenduaren 26an argitaratu zen GAOn eta jendaurreko erakustaldian 15 egun igaro ondoren, erreklamazio bat aurkeztu da.

4.-Erreklamazioa ondorengo hauengatik sinatua izan da, EAJ udal taldeko kideak direlariak guztiak: M^a Montserrat Arana Perez, M^a Edurne Egaña Manterola, Juan Carlos Cendoya Aizpurua, Isidro Fernández Etxabe eta Xabier Gallastegi Idigoras. Erreklamazioan bost alegazio aurkezten dira.

5.-Alkateak urtarrilak 26an egindako Ogasun Batzordean, bost alegazioetatik , bi bakarrik erantzuten ditu, gainontzeakoak (3) 21/2003 Foru Arauak 17.2 artikuluan esaten duena betetzen ez dutelako. Alkateak aurkeztutako erantzunean bi alegazio atzera botatzen ditu,17.2 artikuluak dionaren arabera.



Ondorioz, 2015eko urtarrilaren 26an, 3 (2 Bildu, 1 Aralar) aldeko botoekin, 1 (1 PSOE)-ren aurkako botoekin, eta 2 (2EAJ) abstentzioarekin, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jasotzen du** eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, 21/2003 Foru Arauko 15.1 artikuluak adierazten duen bezala. Beraz erabaki da:

1.- Ez onartzea Montserrat Arana Pérez, M^a Edurne Egaña Manterola, Juan Carlos Cendoya Aizpuru, Isidro Fernandez Etxabe eta Xabier Gallastegi Idigorasek egindako alegazioak, eta 21/2003 Foru Arauak dionaren arabera 2015erako aurrekontu orokorra behin betirako onartzea.

2. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da entitate bakoitzaren aurrekontuak kapituluka banatuta, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean."

Alkateak azaldu du honen inguruan interpretazio ezberdinak daudela eta ez dagoela argi epealdi barruan ze pertsonek jarri dezaketen helegitea baina ontzat eman dela, hitz egin zelako interpretazio zabala egingo zela eta ondorioz, onartu dela epealdiz kanpo aurkeztu arren eta pertsona partikular moduan aurkezten dutelako.

Iñakik dio 1.go, 2.go eta 5.go alegazioei erantzutera ez direla sartu Foru Arauaren 17.2 artikuluen barruko arrazoieta oinarritzen ez direlako, eta 3. eta 4. alegazioak erantzun direla.

3. alegazioari dagokionez, lur sail industriala berriro ere salmentara jartzeko asmoa dutela eta ekonomia mugitzen ari denez espero dutela saltza.

4. alegazioari dagokionez, Iñakik dio, kostuen estimazio zehatza ez dakitela oraindik, eta jakitean kreditu aldaketa egingo dela.

Argitu du bozkatuko dena dela alegazioei erantzutea eta ondorioz, aurrekontua behin betiko izaeraz onartzea.

Jarraian galdezen du ea norbaitek baduen zerbait esateko.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta azaldu du pertsona fisiko edo herritar bezala azaldu nahi zutela eta egia dela talde politiko baten kide direla baina asmoa herritar bezala aurkeztea zela. Epearri dagokionez, udaletxearen galdezu egin zutela eta epea gaizki eman zitzaiela argitu nahi dutela dio. Azaltzen du bide politiko guztiak agortu nahi zituztela, elkarritzetarako 2. saiakera bat egin nahi zutela; arriskuan dagoena importantea dela eta hausnarketa politiko bat egitea merezi zuelako nahiz eta azkenean alferrikakoa izan. Talde politiko bezala herritar horien erreklamazioa ontzat ematen dutela eta diktamenaren kontra bozkatuko dutela adierazten du.

Iñaki alkateak adierazi du harritu egiten dela erabaki horrekin, aurretik esan zutelako abstenitu egingo zirela. Herritar edo pertsona bezala aurkeztu dutelako onartu dela helegitea eta orain ez zaiola etikoa iruditzen talde politiko bezala bozkatzea.



Zumaiaako Udala

2015IAKU0001-009-001

Edurne Egañak (EAJ-PNV) azaldu du pertsona bezala aurkeztu dutela, noski, baina gaur talde politiko bezala daudela eta talde politiko bezala herritar horiek aurkeztu duten erreklamazioa ontzat ikusten dutela; bi gauza direla dio, herritarrak eta talde politiko baten kideak.

Arritxu Gonzalezek (BILDU) hartu du hitza eta idazkariari galdeku dio.

Amaia Gonzalezek (halabeharrezko idazkariak) argitu du bereizi behar dela aldarrikatzen duten interesa partikularra den edo interes publikoa den. Azken kasua bada, eta hemen zinegotzi moduan egonda, adierazten du bozkatu egin beharko luketela aurrekontuak onartzea eta egindako alegazioei erantzutea.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta esan du zalantza sortu zitzaiela erreklamazioa aurkezterakoan baina gaur hemen daudela talde politiko bezala eta halaxe azaldu behar dutela beraien postura erreklamazio horren aurrean.

Idazkariak adierazi du alegazioak aurkezterakoan interes partikularra defendatu nahi bazuten orain ezin dutela bozkatu eta bozketatik atera beharko luketela baina alegatu nahi zutena interes publikoa baldin bada, orduan, zinegotzi bezala bozkatu beharko luketela. Jarraitzen du esaten zalantza sortzen dela ez delako argi geratzen nor bezala aurkezten dituzten alegazioak, herritar bezala edo talde bezala; alegazio idatzian talde politikoaren logotipoa ere azaltzen dela dio. Adierazten du beraiek jakin behar dutela nola aurkeztu dituzten alegazioak eta ondorioz uste dutena bozkatu.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta esan du zinegotziak herritarrak ere badirela.

Jarraian Iñaki Alkateak aipatu du beraiek egiten duten kritika dela, zinegotziek badutela lehenago, alegazio horiek planteatzeko beste momentu bat, aurrekontuak honaino aurkeztu aurretik egindako tramite guzti hori, hain zuzen ere. Orain ireki den epea jendeari zabalduta zegoela eta EAJ-PNVk hori aprobetxatu duela, esanez herritar soilak direla eta horrela, aurretik sartu ez dituen alegazioak aurkeztuz.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) erantzun dio lehen ere alegazio hauek sartu zituztela; aurkeztutako osoko zuzenketa, 1.go, 3.go eta 4.go puntuatan oinarritzen zutela.

Iñaki alkateak aipatzen du 1.go, 3.go eta 5.go alegazioak ahoz esan zituztela baina idatziz ez zituztela aurkeztu. Esaten du legearen aldetik ez dakiela nola izango den baina etikoki ez zaiola ondo iruditzen, beraiek interpretazio zabal bat egin zutela aurkeztutako alegazio idatzia onartzeko, batzordean esan zutelako ez zutela parte hartuko bozketan, abstentu egingo zirela eta orain harrituta geratu dela.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) erantzuten dio beste herritar batek aurkeztu izan balu beraiek talde politiko bezala bozkatuko luketela.



Zumaiako Udala

2015IAKU0001-009-001

Iñaki alkateak adierazten dio kasualitatez herritar horiek beraiek bostak direla.

Arritxu Gonzalezek (BILDU) jarraian aipatu du komeni dela gaia argitzea hurrengo baterako.

Amaia Gonzalezek hartu du hitza eta esan du alegazioak aurkeztu dituenak argitu beharko duela noren izenean eta ze interes defendatzeko aurkeztu dituen; Interes partikularra edo pertsonala bada ezingo duela bozkatu eta, aldiz, herritarren interes publikoa bada kontra bozkatu edo abstenitu daiteke. Aipatzen du indefinizio hori argitu beharko luketela.

Iñaki alkateak hartu du hitza jarraian eta esan du trimitazio kontua dela, badagoela epe bat alderdi politikoentzat eta gero Foru Arauak beste epe bat ematen duela, behi plenoan zinegotziek onartu eta jendaurrean jartzen denean, beste edozeinek, zinegotzietatik aparte, alegazioak aurkeztekko aukera izan dezan; esaten du azken epealdi horretan egin dutela beste alegazio bat eta aprobetxatu nahi izan dituztela biak. Berriro aipatzen du batzordean ulertu ziela ez zutela bozketa parte hartuko.

Jarraian, Emiliano Cabañasek (PSE-EE) hartu du hitza eta adierazi du ez diola zentzurik ikusten eztabaidea honi, are gehiago, emaitzan ez duenean eraginik izango. Esaten du berari berdin diola beraiek bostak aurkeztu duten edo beste bost herritarrek aurkeztu duten; azken kasuan ere, ordezkaritza izango luketela publikoan eta beraien alegazioak defenditzeko aukera eman beharko litzaiekeela, beraiek ez luketela bozkatuko baina zinegotziek bai. Adierazten du plenoari aurkeztu dizkiotela alegazioak, plenoak erantzun egin behar duela eta zinegotziek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea dutela.

Iñaki alkateak erantzun dio esanez hain justu horregatik dela, legeak prozedura batzuk ezartzen dituelako alderdi politikoentzat eta herritarrentzat bereizita; Foru Arauan erraz bereizten direla eta bere ustez ere, eztabaideak ez duela zentzu gehiagorik.

Jarrain bozkatzera pasa dira

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **7 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: **4 boto** (4 EAJ-PNV)

ERABAKIA:

1.- Ez onartzea Montserrat Arana Pérez, M^a Edurne Egaña Manterola, Juan Carlos Cendoya Aizpurua, Isidro Fernandez Etxabe eta Xabier Gallastegi Idigorasek egindako alegazioak, eta ondorioz, 2015erako aurrekontu orokorra behin betiko izaeraz onartzea.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



1.3.2.- ZUMAIA LANTZENEN LIKIDAZIO PROZESUAREN AURREAN ZEIN AUKERA DAUDEN UDALAK BEREGAIN ZORRA HARTZEKO ERABAKIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

"2015eko URTARRILAREN 26ko OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA ZUMAIA LANTZENEN ZORRA UDALAK BERE GAIN HARTZEARI BURUZKOA

AURREKARIAK

1.- 2014ko abenduaren 19an Zumaia Lantzeneko administrazio kontseiluak erabaki zuen likidazio prozesuan sartzea.

2.-Gaur egun Zumaia Lantzeni 3.000.000 euro inguru gelditzen zaizkio banketxeei ordaintzeko ondorengo baldintzetan:

Entidad Prestataria	NºContrato Préstamo	Garantia	F.Inicial	F.Final	Interes %	Periodic	Fecha	importe	Importe Inicial	Saldo vivo a 01/01/2015	% Cancelación anticipada	Importe Comisión Cancelac.
Bankoa	0050594106	Aval Apto.	28/12/2011	28/12/2021	Eur +4	Sem.	28/06/2014	75.287,77	1.000.000,00	893.808,08	0,50%	4.469,04
Bankoa	0050599647	Hipotecario	18/07/2012	31/01/2018	Eur+4,5	Mensual	31/01/2014	9.271,69	2.781.000,00	1.483.630,00	0,50%	7418,15
Kutxabank	2521518163	Aval Apto.	28/12/2011	28/12/2021	Eur+3,75	Trim.	31/03/2014	7.190,75	700.000	624.588,40	1,00%	6245,884
TOTAL										3.002.026,48		18.133,07

3.-Udalak mailegu hauen ordainketa bere gain hartzeko, eskaintzak eskatu zaizkie Zumaian ordezkaritza duten banketxe guztiei. Eta gaur egun ondorengo eskaintza hauek jaso dira: (Bankoak agindu du eskaintza on bat egingo duela behean aipatzen duena hobetzen duena baina gaur egun, 2015eko urtarrilaren 26ean, oraindik ez dugu jaso beste eskaintzarik).

PROPYUESTAS BANCARIAS RECIBIDAS							
Entidad Financiera	Importe	Interés	Plazo Revis.	Plazo	Garantia	Comisiones	Comentario
Banco Santander							No están interesados en la propuesta realizada
Caja Laboral							No están interesados en la propuesta realizada
Kutxabank	3.000.000	Euribor+1,5	Semestral	8	Fondo Foral Financiación Municipal	NO	
Sabadel Gipuzcoano	3.000.000	Euribor+1,05	Trimestral	12	Fondo Foral Financiación Municipal	NO	
Bbva	3.000.000	Euribor+1,14	Trimestral	10	Fondo Foral Financiación Municipal	Cancelación anticipada:0,50%	
Caixa	3.000.000	Euribor+0,85	Trimestral	15	Fondo Foral Financiación Municipal	NO	
Caja Rural Laboral	3.000.000	Euribor+0,85	Trimestral	15	Fondo Foral Financiación Municipal	NO	Condición: Que parte de la operativa bancaria municipal se canalice mediante su entidad (recibos, nóminas, domiciliación Fondo Foral, pagos a proveedores...)
Bankoa	1.483.630,00	Euribor+1	Semestral	12	Fondo Foral Financiación Municipal	3.709,08	Han presentado la oferta sólo por el importe de los préstamos concedidos en este momento a Zumaia Lantzen. Si se firmase con ellos el nuevo préstamo, se trataría de una subrogación y no habría costes de cancelación. Pero como contrapartida, establecen una comisión de apertura de 0,25%.
	893.808,08	Euribor+1	Semestral	12		2.234,52	
Kutxabank	624.588,40				Fondo Foral Financiación Municipal		Debido a que Bankoa ha presentado la oferta sólo sobre sus préstamos, se le ha solicitado a Kutxabank una nueva oferta sobre la cantidad pendiente por devolver en este momento por Zumaia Lantzen. Pendiente de respuesta

**IRIZPENA**

Beraz, 2015eko urtarrilaren 26an egindako Ogasun Batzordean, 4 aldeko botorekin (2 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSOE) eta 2 abstentziorekin (EAJ) erabaki zen **irizpen hau** onartu eta Udalaren Osoko Bilkurara eramatea.

Beraz, honako hau erabaki du:

1.-Udalaren Osoko bilkurari proposatzea goian aipaturiko 3.000.000,00, inguruko, maileguetako bat aukeratzea. Gerta liteke ordaintzeko gelditzen den kopurua txikiagoa izatea poliza berrian sinatzerakoan izandako atzerapenaren ondorioz. Atzerapena, Foru Aldundiaren baimena behar izateak eraginda dator (tutoretza finantzarioa) alde batetik eta poliza hori sinatu ahal izateko hurrengo aurrekontu aldaketaren onarpenak eraginda bestetik."

Iñakik azaldu du batzordetan gaia tratatu denez badakitela Zumaia Lantzen likidazio prozesuan dagoela eta gaur egun Zumaia Lantzenek Bankoarekin eta Kutxarekin dituen kredituak udaletxeak bereganatzeko prozesu horretan, herriko basketxeekin bilera ezberdinak izan dituztela, proposamen ezberdinak aztertzeko aukera egon dela eta azken proposamen bat ere izan dutela mahai gainean jarri dena osoko bilkura honen aurretik; jarraitzen du esaten Mikel kontu hartzaileak aurkeztutako taulan agerian jartzen dela eskaintzarik onena BANKOArena dela, proposamen egokiena BANKOArena dela iruditzen zaiela. Adierazten du Zumaia Lantzenetik eratorritako kreditu horientzat bakarrik, udalak hartuko lukeen konpromisorako Bankoarekin hitzartzea izango litzatekeela proposamena eta alkateari ahalmena ematea kreditu berri hori sinatzeko, hor ikusten diren kondizio berri horietan. Berriro errepikatzen du hori izango dela Zumaiako udaletxeak kreditu bezala beregain hartuko duena, alegia, Zumaia Lantzenetik eratortzen den kopuru berdina eta ez besterik.

Jarraian, norbaitek zerbaitek esateko duen galdu du.

Edurne Egañak (BILDU) azaldu du Mikelek, kontu-hartzaileak, azaldu diela nola izango den operazioa baina duela oso denbora gutxi eta ezin dutela eztabaидatu denbora gutxi izan dutelako gaia azterzeko. Argitzen du beraiek abstenitu egingo direla bi arrazoiengatik: alde batetik, denborarik ez dutelako izan gaia azterzeko eta bestetik, oinarrietan ere erabaki hori azaldu zutelako.

Ondoren, Emiliano Cabañasek (PSE-EE) hartu du hitza eta adierazi du gustatuko litzaiokeela Zumaia Lantzenek jarraituko balu baina eskaintzarik hoberena hori bada, pixkanaka zorra kitatzen joan beharko duela. Azpimarratu du ondorengo 4 legealdik ordaindu beharko dutela. Jarraitzen du esaten ez ginatekeela honaino iritsi behar beste era batetara jokatu bazen lehen baino orain ez dela besterik geratzen.

Jarraian, bozkatzen pasatu da:

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **8 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **4 boto** (4 EAJ-PNV)

ERABAKIA:

1.- Zumaia Lantzenetik eratorritako gutxi gora behera 3.000.000 euroko kreditua udalak beregain hartzeko Bankoak egindako proposamena onartzea eta, ondorioz, Bankoarekin kreditua hitzartzea ondorengo baldintzetan:

BANKETXEA	Zenbatekoa	Interesa	Epea	Bermea	Ordaindu behar diren interesak	Formalizazio gastuak	Kostuak guztia 15 urteetan		
Bankoa	624.588,00	Euribor+0,94 1,215%	15	Fondo Foral Financiación Municipal	58.958,00 €		283378+4584+702+550+6246=285869	283.378,00	Bankoa-ren maileguaren bizitza osoko interesak
					84.371,00 €			4.584,00	Mailegu hipotekarioaren subrogazioaren kostua
								893,808	ren maileguaren notaritzako korretaje 702,00 gastuak
								550,00	Kutxabank-eko maileguaren korretaje gastuak
								6.246,00	Kutxabank-eko maileguaren kanzelazioaren komisioa
	893.808,00	Euribor+0,94 1,215%	15				12.082,00		
	1.483.630,00	Euribor+0,94 1,215%	15	Hipotecaria	140.049,00 €	4.584,00			

2.- Alkateari, kreditu-hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

2.- HIRIGINTZA.-**2.1.- ZUMAIKO 18 HA- J.M. KORTAKO A7 PARTZELAREN INGURUKO ALDAKETA XEHEKATUAREN PLAN BEREZIARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-**

"2015eko URTARRILAREN 19KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, BALENCIAGA S.A.K AURKEZTUTAKO ZUMAIKO 18 HA-KORTAKO A7 PARTZELAREN INGURUKO ALDAKETA XEHEKATUAREN PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Ikusirik 2013ko Apirilaren 29n, BALENCIAGA S.A.k Juan Luis Oroz Barberia, arkitektoak egindako Zumaiako 18 HA-Kortako A7 partzelaren inguruko aldaketa xehekatuaren Plan Berezia aurkeztu zuela.



Dokumentu hori, Hirigintza batzordean aipatu zen eta Euskal Herriko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 95. artikulua eta ondorengoen arabera, hasierako izaeraz onartu zen 2013ko Azaroaren 13ko 743/2013ko Alkatezta Dekretuz.

Espedientea, 20 eguneko epean jendaurrera azaldu zen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko azaroaren 21an eta lurralte historikoan tirada duten egunkarietan 2013ko azaroaren 19an argitaratu zen.

2.- Ikusirik agerraldi publikoko epean ez dela inongo alegaziorik aurkeztu.

3.-Ikusirik URA Euskal Urren agentzia eta Kosta eta Itsaso Zuzendaritza Orokorraren aldeko txostenak (2014ko abenduaren 16).

IRIZPENA

Ondorioz, 2015ko urtarrilaren 19ko Hirigintza eta Ingurumen Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (Bildu)
Isidro Fernandez (EAJ)
Xabier Gallastegi (EAJ)
Emiliano cabañas (PSE)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- BALENCIAGA S.A.k sustatu eta Juan Luis Oroz Barberia, arkitektoak idatzitako Zumaiako 18 HA-Kortako A7 partzelaren inguruko aldaketa xehekatuaren Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

